UEU. Iruñean 25 urtez egindako lana «eskertzea» da Oinarriak-ek emandako laguntzaren arrazoia

Zerga eragozpenarekin lortu diruaren zati bat eman dio Oinarriak-ek UEUri

Nafarroako Gobernuko eta Iruñeko Udaleko agintarien «bidegabekeriak» salatu dituzte

Orreaga Aranburu | IRUÑEA

Euskarari zor zaiona ekimenaren bidez lortutako dirutik miloi bat pezeta (40.000 libera) eman diote Nafarroako euskalgintzako hainbat taldek UEUri, «25 urtez egindako lana eskertzeko». Atzo, horren berri emateko prentsaurrekoa eskaini zuten .

Bertan, Karrikirri elkarteko Isabel Ferreira, Euskal Kultur Elkargoko Jose Luis Mendoza, Oinarriak-eko Joxe Aldasoro eta Iñaki Akizu, UEUko zuzendari Xabier Isasi eta ESK sindikatuko Xabier Barber izan ziren. Izan ere, zerga eragozpenaren kanpaina Oinarriak elkargunearen ekimena izan bazen ere, erakunde hauek laguntzeko prest agertu ziren.

Joxe Aldasorok azaldu zuenez, Nafarroako Gobernuak euskararen aurka hartutako neurriei aurre egiteko jarri zuten martxan ekimen hori: «Errenta aitorpenaren kanpainaz baliatu nahi genuen, zergen kopuru bat euskararen normalizazioaren alde desbideratzeko». Helburua bikoitza zela adierazi zuen Oinarriak-eko kideak: «Nafarroako Gobernuaren euskararen inguruko politika salatzea eta euskararen normalizazioan urratsak egiteko dirua biltzea».


JOXE LACALLE
UEUren lana eskertzeko eta horretan jarraitzeko eman diote dirua zerga eragozpenaren kanpainakoek.

Euskarari egindako erasoak salatu dituzte

Bildutako dirua «euskararen erabilera eta gure hizkuntzaren aldeko jarrerak bultzatzeko» erabiliko zela azaldu zuen Aldasorok. Hori dela-eta, Oinarriak taldeak eta euskararen aldeko beste hainbat kolektibok bildutako lehen milioia UEUri emango zaio. «UEUk 25 urteotan egindako lana eskertu nahi dugu, eta Nafarroako Gobernuko eta Iruñeko Udaleko agintariek egindako bidegabekeriak salatu nahi ditugu; izan ere, UEU diru laguntza publikorik gabe utzi dute unibertsitate izaerarik ez duela argudiatuta», adierazi zuen Aldasorok.

Bestalde, kanpainarekin bat egin zuten herritarrei eskerrak eman zizkien, erakutsitako jarreragatik. Hala ere, Aldasorok kritikatu zuen, ekimena abian jarri zenetik, Nafarroako Gobernuak ez duela euskarari dagokionean bere ildo politikoa zuzentzeko keinu bakar bat ere egin.

Azken hilabete hauetan berri kezkagarri gehiago izan direla salatu zuen: «NUPetik euskarazko ikasketak kentzeko asmoa, euskara dekretuak, Nafarroako deialdien programa gaztelera hutsez argitaratzea...».

Ohorea eta erantzukizuna

Xabier Isasik, UEUren izenean, eskerrak eman zizkien kanpainaren bultzatzaile eta parte hartzaileei. Horrelako gizarte ekimenetatik diru laguntza jasotzea «ohore bat eta, aldi berean, erantzukizun handia» dela erran zuen. «Euskara denon artean jaso behar badugu, herritarren ekimenez dirua jasotzea askoz garrantzitsuagoa da, beste edonondik jasotzea baino», azaldu zuen Isasik eskerrak emanez. Euskarak mugarik ez duela gogoratu zuen UEUko zuzendariak eta «mugak jarri nahi dizkiotenean, euskaldunok muga horien gainetik ibiltzeko gauza garela erakusten dugu», azaldu zuen.

Instituzioek laguntza ukatzea ekonomikoki kolpe bat den arren, kaltea ez dela dirutan soilik neurtzen erran zuen Isasik: «eragina, edonondik ikusita, kaltegarria da».

JOXE ALDASORO
Oinarriak elkarguneko kidea

«Nafarroako Gobernuak eta Iruñeko Udalak diru laguntza kendu diote UEUri, unibertsitate izaera ez duela esanez»

XABIER ISASI
UEUko zuzendaria

«Euskarak ez dauka mugarik eta, jarri nahi dizkiotenean, hauen gainetik ibiltzeko gai garela erakusten dugu»

DATUA

Bi milioi baino gehiago

Euskararen alde. *Euskarari zor zaiona* kanpainan 500 lagunetik gora parte hartu zuten. Guztira bi milioi pezeta (80.000 libera) baino gehiago jaso zituzten. Lehenengo milioia UEUri eman diote, eta bigarrena zertan erabili datorren ikasturtearen hasieran erabakiko dute.

